

Año LI. urtea

128 - 2019

Uztaila-abendua

Julio-diciembre



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

Olaibarko aldaeraren inguruan

(Bigarren erdia: erdialdeko herriak)

Koldo ARTOLA

Olaibarko aldaeraren inguruan

(Bigarren erdia: erdialdeko herriak)

Acerca de la variedad de Olaibar (y 2 - Segunda mitad)

On the Olaibar variety (and 2 - Second half)

Koldo ARTOLA
Donostiako Aranzadi Zientzi Elkarteko Etnografi Sailekoa
kmartola@gmail.com

Esker biziak damazkiot lana irakurri eta zenbait iradokizun egin didan Xabier semeari, Euskal Filologian lizentziaduna denari.

Jasotze data: 2018/12/24. Behin-behineko onartze data: 2019/03/20. Behin betiko onartze data: 2019/05/06.

LABURPENA

Olaibarko hau Louis-Lucien Bonaparte euskalariak, Iruñe ondoko Atarrabia herria hegoaldeko mugatzat harturik, Ezkaba menditik iparraldera, Ezkabarte, Olaibar eta Odieta izeneko ibarrek osatzen duten esparrua aintzat hartuz jo zuen aldaeratzat, beste gainerakoekin batera (*Erro*, *Auritz*, *Artze* eta *Elkano* deiturikoekin) *cispamplonés* deitu zuen azpieuskalkiaren bosgarrena osatuz, hori guztia, jakina denez, *Hegoaldeko goi-nafarrera* deitu ere zuen euskalkiaren barruan kokatuz. Lan honetara, azpituluan aipatzen denez, aldaerari dagozkion erdialde eta hegoaldeko zenbait herritan duela hogeta hamabost, ia berrogei urte, bildu genituen grabazioetatik ateratako hainbat testu ekarri dugu.

Gako hitzak: Hego-nafarrera: Olaibarko aldaera (Odieta hegoaldeko herriak, Ezkabarteko Anotz eta Olaibarko Olaitz); euskara; dialektologia.

RESUMEN

Esta de Olaibar fue así denominada por el vascófilo Louis-Lucien Bonaparte cuando formalizó su clasificación de las hablas vascas. Estableció el punto más al sur de esta variedad en el pueblo de Atarrabia (Villava), a las afueras de Iruñea (Pamplona), extendiendo la misma al norte del monte Ezkaba abarcando los valles de Ezkabarte, Olaibar y Odieta. Con dicha variedad –la quinta–, sumada a las de *Erro*, *Auritz* (Burguete), *Artze* y *Elkano*, completó lo que él denominó subdialecto *cispamplonés*, dentro del dialecto *alto navarro meridional*. Tal como se indica en el subtítulo de este trabajo, traemos aquí diversos textos recogidos en las partes central y sur de la variedad, hace ahora unos treinta y cinco, casi cuarenta años.

Palabras clave: Euskera navarro meridional; variedad de Olaibar (pueblos del sur de Odieta. Anotz de Ezkabarte y Olaitz de Olaibar); dialectología vasca.

ABSTRACT

The Olaibar variety was given its name by the Basquephile Louis-Lucien Bonaparte when he made his classification of the Basque language. He defined the southernmost point of the variety as the town of Atarrabia (Villava), on the outskirts of Iruñea (Pamplona), spreading it north of Mount Ezkaba to encompass the valleys of Ezkabarte, Olaibar and Odieta. By adding this fifth variety to the *Erro*, *Auritz* (Burguete), *Artze* and *Elkano* varieties, he completed what he called the *cispamplonés* subdialect of the *southern upper Navarrese* dialect. As indicated in the subtitle, this paper offers several texts collected from the central and southern parts of the area some thirty-five, almost forty, years ago.

Keywords: Southern Navarrese Basque; Olaibar variety (villages in the south of Odieta. Anotz in Ezkabarte and Olaitz in Olaibar); Basque dialectology.

1. SARRERA LABURRA. 2. DATUEN TRANSKRIPZIORAKO OHARRAK. 3. SAIO HONETAKO BERRIEMAILEEN ZERRENDA. 4. ZIAURRITZ. 4.1. Ignacio Larraia Etxaide. 5. ANOTZIBAR. 5.1. Francisca Doncel Zalba. 6. ANOTZ (EZKABARTE). 6.1. Celedonia Zenotz Arzte. 7. OLAITZ (OLAIBAR). 7.1. Jose Mari Makirriain Alzuza. 8. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA LABURRA

Saio honen bidez Louis-Lucien Bonapartek *cispamplonés* azpieuskalkiaren barruan *Olaibar* izen orokorrez sailkatu zuen aldaerari egokituriko herri batzuetako euskararen berri ematen saiatu gara. Herriok, oraingo honetan, Odieta hegoaldeko Ziaurritz eta Anozibar dira, hau da, aurreko saioan sartu gabe geratu zitzaizkigun Odieta ibarreko bi herriak, alde batetik –Ostitzen ez baikenuen xede honetarako berriemaile egokirik aurkitu–, eta Ezkabarteko Anotz zein Olaibarko Olaitz, bestetik.

Honen aurrekoan esan genuena gogora ekarriz, Pedro de Yrizarrek 1992an argitaratu zuen *Morfología del verbo auxiliar alto navarro meridional* lanean aldaera honetan azpialdaerarik ikusi ez izana lagungarri gertatu zaigu aparteko bereizketarik egin behar ez izateko.

Aldaera honi eskainiriko ahaleginaren bidez Bonapartek *subdialecto cispamplonés* deitu zuen esparruko bosgarren eta azken aldaeraren berri ematen saiatu gara. Aurrenik iritsi ziren *Arce* izeneko (zeinetarik, *Egüés* izenekoaren aspaldiko lexikoa baliatuz, bertako esparruan murgiltzen ausartu ginen), *Burguete* eta *Erro* izenekoak, oraingo honekin bukatzeko.

2. DATUEN TRANSKRIPZIORAKO OHARRAK

Bokal batzuen itxierak: *a* eta *e* artekoa *ä* idatzi dugu; *e* eta *i* artekoa *ë*; *o* eta *u* artekoa, *ö*. Inoiz, *i* eta *u* arteko bat aditu uste izan dugunean, *ü* idatzi dugu.

Azken horrek bitxi samarra iduri badezake ere, oroitarazi nahi dugu Bonaparteren eskuizkribuetan hitzek artikulua hartzean nola jokatzeko zuten adierazteko hark berak idatziriko orrian¹ zera irakur daitekeela: «Uriz: á, eá, ía, oá, úa», azken honen kasuan, *u*-aren gainean eta tildearen azpian, puntutxo bat agertzen dela. Edozein kasutan, Erroibarko aldaeratik Olaibarko honetara igarotzean, era horretako soinua ia desagertu egiten da, Gaskuen bi aldiz eta Gelbentzun eta Ziaurritzen bana baizik ez baitugu antzeman, nahiz gero, hemendik mendebaldera ere, Txulapaingo ibarrean zehazki, halakoren bat edo beste aditu dugun.

Ia aditzen ez diren hizkiak, honen aurreneko saioan egin bezala, parentesi artean idatzi ditugu. Zalantzarria iruditu zaigun hitzaren ondoan, parentesi arteko galdera-ikurra (?) idatzi dugu eta harridura sorrarazi digunaren alboan, harridura-ikurra (!). Halaber, pasarte ilun batzuk parentesien arteko eten-puntuak idatziz [...] ekidin ditugu.

Parentesi karratuak [] erabili ditugu inoiz, hitzen edo esaldi motzen bat testuen barruan tartekatuta dugunetan, horietan jasotzen dena argitzeko asmoz.

Beste kontu bat da galdera-ikurrena. Irakurlea ohartuko denez, zeinu hori ez dugu soilik galderetan erabili, berriemaileek zenbait esaldiri galdera-itxurako intonazioa eman dioten hainbat alditan ere paratu dugu.

Tildeak, gure lehenagoko saio batean esan genuenaz bestera, Anozko eta Olaizko testuetan mantendu ditugu, zeren, aspaldiko gure zirriborroetan markatuta zeudela ikustean, interesgarria iruditu zaigu halakoei eustea. Hortaz, eta duela ez aspaldiko gure ohiturari jarraikiz, bi eratako azentuak erabili ditugula oroitarazi beharrea gara: indar edo intentsitate handikoa (´) bata eta hori baino txikiagokoa (`) bestea.

3. SAIO HONETAKO BERRIEMAILEEN ZERRENDA

Ziaurritz (Odieta)

Ignacio Larraia Etxaide, 1904an sortua
aita: Ziaurritz / ama: Almandoz (Baztan)

Anotzibar (Odieta)

Francisca Doncel Zalba, 1896
aita: Larraintzar (Ultzama) / ama: Sarasibar (Esteribar)

Anotz (Ezkaibarte)

Celedonia Zenotz Artze, *Motxale* etxekoa, 1908
aita: Anotz / ama: Erripa (Odieta)

¹ *Bonaparte ondareko eskuizkribuak...* izenburuko liburuen azalean ageri da hau.

Olaitz (Olaibar)

Jose Mari Makirriain Alzuza, *Perorena* etxekoa, 1888

aita: Orrio (Ezkabarte) / ama: Etsain (Anue)

4. ZIAURRITZ**4.1. Ignacio Larraia Etxaide****Inoizko chuntzalez (1983)**

... el 23 murió; tejedor tze.

– Eta, zer zuen, makina bat?

Ez, ez, e... lau oll-, olleki², berak iñe, izein tzen.

– Baina, bertze makinaren bat izanen zuen...

Bai, makiñetzen nue (!), ol batzuki berak iñe, con unas tablas se hizo él mismo, un artefato (sic), y allí... ponía los hilos y, yo ya no me acuerdo cómo, pero él hacía; tejedor, José Benito Izu se llamaba.

– Eta, nongoa zen?

Emengöa.

– Jende asko joaten zen gauzak egitera?

Ni enaiz gooizen artaz.

Lau esaldi labur (1983)

Gizona etorri de Iruñetik / Makumea yoan biar du bier Iruñera / Yoan biau igual, Iruñe aldera / Yoan beauzu sanfermiñetara?

Inguruko eskolak non (1983)

– Balle guztiko haurrak hona etortzen ziren?

Ez, ez, ez.

– Herri bakoitzekoak berean?

Emen bazen eskola ta... Latasan ere bai; Erripen ez, ez zen eskola.

– Erripen ez?

(Lehen esanikoa zuzenduz): Bazela, había en Ripa también escuela.

– Eta Gaskuen ere bai berea?

Gaskue? a Gelbenzu.

– Kasik herri guztietan bazen...

Geienetan bai.

– Eta, zenbat haur biltzen zineten?

Ooo! eztakit, eztakit, eztakit zenbat.

2 «Oholekin», alegia, horko bustidura ohikoa ez izan arren.

Adizkera batzuk (1986)

- A un chaval, por ejemplo, hablándole de «hi»: «hik yotzen duk» puede ser?
Zeatik yo in... yo diok aurr orrei, bezte oe?
– «Tú has pegado una patada»...
Oztiko man diok... zeatik man diok oztiko oi? beste orrei?
– «Vino un hombre».
Gizon bat torri de.
– Eta atzo?
Atzo torri zen.
– Eta, mutiko ttar bati errateko? «badakik? atzo, gizon bat etorri...».
Etorri zen?
– «Etorri huen» se puede decir, hablando de «hi»?
Etorri zen atzo? zure itxera? mutiköa? o gizon bat? gizon zar bat? Ta gero... ori erran
dut nik.
– Nik erraten diot bati: «zuk yo duzu zakurra», baina hiketan egiten badut, orduan
«hik yo duk zakurra»?
Tzakurrei.
– Eta erraten badut «atzo etorri zen gizon bat», baina hiketan...
Torri zen!
– ¿Pero hablando de «hi»?
Ori, atzo torri zen gizona, zure itxera.
– «Llévate ese pan».
Eman tzak ogi oi o(r)tik.
– «La casa es pequeña».
Itxe txarra uk, itxe ttikie da.
– Y hablando a un chaval, se puede decir «itxea txikia duk»?
Igual, igual.
– Y ¿«trae aquí unos huevos»?
Katzak, olako itxetaik, arroltze batzuk.
– Y ¿hablando de «zu» «kartzazu», ezta?
Katzazu.
– Y ¿«no se han llevado los cuchillos»?
Kanabitek eztuzie eman, tzorrotzera.
– Ez; «no los han llevado ellos»...
Eztute eman, iñok eman du, iñok eztute eman.
– Y hablando de «hi», ¿se puede decir «ez ditek eman»?
Igual, sí.

Usoak izan dituela dio (1986)

- Usoek non egiten dute habia?
Itxe zar ortan, goitti ortan; kabiek... korrozpetan igual, itxetik kanpoan igual, ka-
biek.
– Eta zenbatean behin erruten dute arrautza?
Ongi dakine? illebetero.

– Bai?

Bai, beñon... makurtzen dielaik pixkuat? orduen, bi edo iru illeetetik, oi, iru illebetetik ta igual.

– Eta zenbat arrautza erruten dute aldi bakoitzean?

Bie, bi... pare bakotxa bie. Izendu dutut³ nik ere usoak, enkargatu nitzen. Galdu in tzie arront.

– Zergatik?

Yoaten baitziren beztze itxetara, korrozpetara, arrotze... iten ta gero, umiak ateratzen zirelai(k), infernuko diabru bezala...

(Pedro, Inazioaren lagun bat): Si hay en varias casas, ya es un lío, se complica.

– Zikintzen dute aunitz?

Ai!... telletuez gañera, telletue ta, abarrikatzen due telletue, zikiñe tire, arron zikiñek.

– Eta iduki zenuten denboran, zer egiten zenuten? jan?

Yan... ttikiek yan.

– A, ttikiak?

Ttikiek.

– Hazi eta gero, e? «pichón» edo...

Ori, ori, pichón.

– Eta, erraz, aise harrapatzen dira?

Ez... ez-ez; tiroa, tiro, tiroka ere bai, bein beño geiagotan.

– Baina, etxeakoak baldin baziren...

Itxekua pai, itxekuak... ba kanpokoak libre die, tiroa iteko.

– Etxekoak eskuz harrapatzen zenituzten?

Batzu pai, biño denak ez, denak ez.

(Pedro): Sí, una vez que ya s'an, han desarrollaö y han volaö, entonces ya es un lío, claro.

Urrozko eta Irurtzango ferien aipamen laburrak (1986)

– Denbora batean Urrotzen egiten zen feria, ezta?

Bai, launbeteik, la... ortzeunia! ortzegunian.

– Joan izan zara haraino?

Ez, ez; ba gaizki nago ni Urrozen, emen...

– Eta, badakizu hemendik haraino joateko zein herritarik pasatzen den?

U! Uroz ta... Lerruz te oietaik, aunitz pobl-, ba! oik... ogei kilometro eskasak dire, Iruñetik Urrotza, urrun dao... urrun dao oi e.

(Pedro): Sí, pero esa feria, solía ser una feria txarra, cabras, unas cabras, unas ovejas...

– «Txarra» da ttikia, ezta? inportantzia gutikoa?

(Pedro): Bai, ori, inportantzia gutikoa; así como... nosotros hemos conocido, la feria de Irurzun çhas conocido el ferial de Irurzun?

– Ez, aditu bai, baina ezagutu ez...

3 Asimilazioa bide da hor, ohiko «ditut» adizkiaren lehen silaba bi *u*-ren artean suertatzean.

(Pedro): Sí, aquello había, había que jibarse...

Irurtzunen bazien orain, berrogeita amar urte... igual, berrogeitamar idi pare, lujoko denak.

– Lujokoak, e?

Bai-bai-bai-bai.

– Eta, haraino bai? joan izan zara?

Auniz aldiz, ibiltzen ni.

– Ea, konta ezazu nondik joaten zineten.

Emendik, Kaskuen barna? Kaskue, Arostegi, te Arostegitik... Eritze, Berasain, Zia... Zia ta ya gero... Muskiz, Zia, Gulina... pixkat, Aixkorbe. Aixkorbeko atarie, an bazen ostatue, ta orduen, atarie oi...

– Irurtzunen orduan euskara aunitz aditzen zen, ezta?

Denak! orduen kasi... kasi denak!

Aitonaren itzaleko haurtzaroa eta orduko giroa (1986)

Orei duela, ni zortziti, ortik nintzelai(k), zortzi urte nituelaik nik ordun, lo iten nuen abueloki, tä... dotriñe? arek, errezatzen... ni lo, zorroa bezala? ta ori, ziriketzen ta aittako ere ez. Izen tze emen... mixioea; mixioeak bakizu zer dien?

– Bai, bai.

Ibarguren, famatue zen gizon ore, ta ber nue, man tzien premia, euzkeaz dotriñe lau, lau parte dozkite? te lau eman, erran ta kontestatu denak, nik, abuelo [...], abueloa il tzen. Ta apezta erdaldune zen? ta akabo. Ta ordun? itz egin, kolejioareki.

– Abuelok laguntzen zizun ikasten?

A, bai!

– Eta Ibarguren nor zen, misionea ematen zuena?

Bai.

– Zer zen, apezta? kaputxinoa edo?

Ez, eztaikit zer tze; padre Ibarguren? padre Ibarguren erraten tzute.

Urriztiko lezea (1986)

Urrizti? en Urrizti hay un aujero... ¡hay estaö yo varias veces!

– Urriztin? bada zulo bat?

(Pedro): En el monte, en el monte.

Badä, iru zuloken (?), enbata aundie bada, ta arei zaio «la cueva de las brujas». Beño bezte gauze bat da, bide ontan; orai bada bide berrie, leno bide zarra zen, ta «la cueva del esportero», esportero, badakizun? gizon zar bat, eri-etxan ibiltzen tzena? ta esportak iten zituen dui kabe ta, bide-iru zu-, zu-, zure! mader! tratue? ta, an bizi-, bizitzen tzen. Oañik bada bai, erresto arrena; «la cueva del esportero».

– Mendiaren izena nola erran duzu, Urreztei?

Urrizti.

– Eta horrek badu zerikusirik Anozibarko brujoarekin?

Zura, an baitago zura, da aundie! ta arei zaio «la cueva las brujas». Ni aunditz aldiz eona naiz, emen nitzen? aixkide bat il tzen, Juan Jauregia; «¿Vamos a dar una vuelta p'allá?». «Pues vamos a ir, sí».

Uso-ehizan ibilia (1986)

– Ehizan-eta ibili zarete?

Uso-izien bai, aunitz ni, uso-izien aunitz.

– Eta, nola joaten zineten edo nola harrapatzen?

Arrapatu? geldiazí, engañatu.

– Nola?

Nola? beztze... uso ateki.

(Pedro): ¡A! ¿palomas, habláis?

– Bai, dice que las engañaban con otras palomas; le digo que me cuente cómo era eso.

Telefoniko bezalako... alanbrea lurrez lurre? itxola in? ta sartu, ta an... ezta iguzkiik ere sartzeko zulok, e? deeliketue, arront deliketua, te usoan-banda? geldiazi dena, banda guzie, ta gero, tiroa? tiroka bota.

– Eta, nola geldiarazten zenuten «bandada» osoa?... «uso-saldoa» erraten da?

Uso-saldoa, bai, bai; pues... bestze usoa, bi, bi uso, lau uso... arbolean puntan paratu; mugiazi! yaten egon bezala, ya tortzen bazien, arraldaka⁴ obenëan, arralda. Ni e... bazen eun bet? yoan nitzela, bizikletaki, emendik Etxalarra, te egun berean, artu usoak, biziek andik... sariak baitute aiek! –badakizu, aiek, nik peño obeki, klaro!– saretaik, artu? iru uso, saski betian, ta... arratseko ameketan itxan; biramon goizian... Orakuma... an goittian.

(Pedro): En ese montico, en ese montico de ahí.

– Bai? mendi-malda horretan?

Ta bi? orei bizi de, bezte lagun bet, e? Seminarioan ezkin oietan. Lotu de? iru paratu, yateko ere [...], ebatsi e bai zenbait aldiz, usalburu itten dee etxeta, artu're bai. Bai, egunoro ibiltzen die. Urte betez bota nituen...

– Urte batez zer, Inazio?

Bota nituen... ya erraten deen... setecientas sesenta y seis palomas, bien ertian; ta egunero yan ta, eunero.

(Pedro): Ahora se ha remataö, ahora no se caza nada.

¿Ahora? balle guzie, ze?... iru-lau, bortz igual; ze paste a?

– Ez da pasatzen lehen bezala, e?

Kalte da ärront.

– Ez dizut ongi konprenditu; Etxalarra joan eta han hiru bat uso harrapatu [...], arbolan bati lotu eta, uso-saldo handia hurbiltzean, haiek ikusi eta haiengana joan ziren?

Klaro! mugitu biar tzien aiek ederki, kontu aundieki!

– A! zuek mugiarazten zenituzten?

Klaro! kuerda batzuk bazeen!

– Usoek haiek ikusteko. Eta, hari telefoniko moduko soka bat mugitzen zenutela diozu?

Bai.

– Eta, zuek ezkutaturik, altxaturik...

Klaro! altxatu erront!

4 Hurbileko Ultzaman ere ezaguna den hitza, Aita Damaso Intzakoak aspaldi bildua (Intza, 1926), bere esanahia «multzoka, saldoka» dela.

– Eta, hauek etortzean, orduan pin, pan, pun?

(Pedro): Sí, sí, bai-bai-bai; era muy elegante eso, mucho, le gustaba a cualquiera, ¡pero se ha terminaö!... ya luego empezaron a tirar, que pasa ahí una banda de ahí, de ese altico, ¡hala! al vuelo, ¡brrrr!... no, ya no cogían ni nada [...]; ha desaparecido, total, la paloma aquí. Sí, ya no se ve nada.

Eultziaz zerbait (1986)

– Eultzia egin izan duzu?

Ultzié⁵... ogie edo?...

– Bai, egitatu, paxuak egin, karrora eraman, larrañean barratu eta hori guztia...

Bai-bai-bai, bai; aundiek die oiek, aundiek, bai.

– Eta, nola egiten zen?

Pues zuk erran duzu baite! karroak ekarri? barratu? te ura, xeetu oi're, bueltaka.

– Zerekin?

A! beieki, idieki, abreaki... al den bezala.

– Eta, haiek tiraka eramaten zuten gauzari nola zaio?

Estrazie! estrazie.

– Eta, pikatu ondoan, zer egin behar zen?

Bildu! agotza... agotza beezi, garëti, ta geo altxa, altxatu gañera, altxo-, aireri! aire bota ta bota ta bota denin... agotza ta garie...

– Eta, haizea etortzen ez zelarik?

Orduen montonan egin, etzonteko.

Belatetik beste aldera (1986)

Y marché con unos amigos [...], hacia San Pedro a fiestas, a Almandoz. Y el palacio, no, Kaate⁶, ya, íntimo amigo, pirín-parán, pirín-parán, y «Vamos a cenar»... fuimos a cenar. Estamos cenando y a un mozo que... le había pegaö a otro, y... y le digo yo: «Koño, arpatu bien ertian? ta osatu! lotsatiko da ordun! osa zazie!». Y le preguntaron al difunto tío lo menos cuarenta: «¿Qué quiere decir “osatu”?». Y «Tzikiretu». Y allá llaman «tzikirätu»; aquí «osatu»: «Torko da bier osazalea, ta abixetu denei, osazalea torko da bier, zortzietako torko da osatzalea»; tä an? tzikiretu.

Ta bertze bat bazen Etxalarren; aextian errautan bezala, yoan nitzen Etxalarra, pues... txofer, txofer okupatzen ordun e, y Nicanor zaio txoferari, il tzire, il tzien da gero!... Yoan nitzen Etxalarra? ta, banue(n) tarjeta bat ekendako, emakume-karteran, banuen tarjeta, gosaltzeko, plantatu ziren bide aderki neri? ya nitzen emendi ni... baruik! baru, badakizu zer den «barue»?

– En ayunas.

5 Beste hainbat lekutako «eultzia» (gazt. 'la trilla, la parva') «ultzia» da aldaera hau mintzo den edo mintzatua izan den esparruan: Gaskuen, Gelbentzun, Erripan, Gendulainen, Ziaurritzen eta Anotzen, gutxienez. Eta hainbat lekutako «euli» hitza ere, bide batez esanda, «uli» eman ziguten Ziaurritzen, Anotzen eta Olaitzen.

6 «Garate» ote da hori?

En ayunas, emendi Etxalar, bizikletan?... Gosaldu nuen? ta orduen, izkutu nitzen arront, ta... an tzaio «palomero», an ba-, badaude usoak bizik, sari orrez, ta... «Katzu jakua» erran tzion, erran tzioten [...], ze ote jakua an e. Paxatik artuta? giltze eman tzion. Etxe, etxola eekitzeko, jakua! Emen «gilz», aiek «jakua». E, ze diferentzie, e?... bai jaune!

– Eta, nondik joan zinen?

Arraiz alde, goiti da, Almandozen barna...

– Belaten barrena?

Belaten barna; ta Belaten orduen bada (sic) autobus bat, atea zen Iruñetik? goizeko bortzetan o... beste ortan, ta an ba... Arraizko, Ultzamako Bentan, berean nitzen itxa bera, ta, kalzea paratu ruedai? te, yoaten tzen fondara deseyunetzera. Ta gero, andik pastu nion, autobusei, te Belaten bazen kontrola; orduen maten tzuten... salbokonduto at, etzela oañik... dokumentu nazional de identidad etzen orduen, nada, eztakit, bistera. Kontrola... Belaten, ta, kont-, Belaten kontrola, autobuseki eta, Mugaiera, atera nittion? amalau minuto! ni, autobus beño lenao, e? muittu nitze!... Mugaireti, izein die or... emezortzi-ogei kilometro, fijate.

Uso-chizan ibilia, oraingoan ere (1986)

– Eta, zuk ikusi zenuen nola harrapatzen zituzten usoak han?

Baitte're! laundu're bai! gero egin nittuen beño, al tzute gañera [...], aixkide bat? atratzen... bazter batetik, bertze bat atzetik beztze aixkide bat, automobilla bazutenak, bazuten automobi(l), ta aieki. Batzen emen albateiroa [...] aspaldi Iruñera. Torri zen egun betez ta, ya, yoain nitzen bïramonian o, ez! ya tzein... egunez in tzen, otro día, Etxalara yoateko.

Ta ni, egunoo enitzen orduko, pereza, pereza, bieje eo... bide koxkorra, ta... ola ibiltzen tze: «Ez al duzu neri, eian⁷ oiek?». «A! ez-ez-ez, nik erran dizut aextiän, beztze bat izein dela, kamineroa, nere gixekua ta, biejea in tzala, Arraizti». Yoan nitze bai, kontent gañea! bai. Egun artan bota zuen ure, oi-oi!... eon giñen, elizen, arrosarioa, elizen, fonda batëan, tä egune arrapatu giñun, jolaxëan.

Ixtorio ttiki bat (1986)

Ya no me acuerdo lo que he dicho...

– Bai, bazela hor, Burutainen gizon bat edo...

Aixu!... Francisco Aramendi.

– Eta, zer gertatu zen?

«Edan tzak ardo ori!», ta, el joven no quería beber, no podía, tenía prohibido.

– Euskaraz kontatu behar duzu; baina hasieratik...

No, la berza, era con berza primero.

– Kontua, nola hasten da?

7 «Esan / erran» bide da hori.

Aza, aza ta patata; platoan... platoa arron llen-, mukurure pa-, paratue ta, «Yan zak, aza ori!». Tä, «Aski dut, aski dut». «Yan zak az ori!». Guk? paliza al último, al chaval; pero cuando conoció al chaval, le dio una botella de vino: «Edan txak ardo ori!». Y, no podía, aizu, entonces otra paliza. Entonces al revés.

Beste adizkera batzuk, baina hikakoak nekez (1986)

- «Ese hombre ve el campo».
- Ori kusteik kanpo oi.
- «Suele comer».
- Orrek yateik.
- ¿Y a una mujer?
- Zuk yatauzu?
- No, para decirle a una mujer, hablándole de «hi», que ese hombre suele comer.
- Ori yaten du aunitz.
- Y ¿para decir «está de pie»?
- Zuti tao.
- Eta, hiketan?
- Zuti tao... zutik zeo ere, zutik zaude.
- No, pero que está de pie el otro...
- Ori... tente dao.
- Y ¿de «hi»? «zutik zegok» o así ¿puede ser?
- Zutik zaude, zutik zaude zu.
- Eta, beste hori?
- Zuri (!) dao, zuri dao ori.
- «Ese está de pie», ¿de «hi»? «zutik zegok», ¿no?
- No, no-no; zuti tao.
- «Ellos están vivos».
- Ori bizi de... oiek bizi dire.
- Eta, «bizi zeudek», ¿de hika?
- No; ori bizik daude, bizi dire! diren.
- ¿«Hemos crecido»?
- Aundittu de, aunditu de.
- «Gu», e?
- Aundittu gara.
- Eta, hiketan?
- Aunditu yaiz aunditz.
- Eta, «haunditu gaituk»?
- ¡Eso pa nosotros mismos!
- (Gure ingurura gazte batzuk hurbildu zirela eta): Y estos estudian, ahora, estos, podrían contestar mejor que yo.
- Bai? hemengoak dira?
- Bat bai, badu (!) Zaragozako neski; exkerretakue? Zaragoza... Zaragozaköa, exkerrekua.
- Eta, ikasten ari da?
- Nik uste; emen dabilte egun oketan, ta gañea ingurune ontan.

- Eta bertzea, eskuinekoa, hemengoa da?
Emengöa da, bai.
- Eta, euskara ikasten ari da?
Bea taki, denbora pasten bai!
- Non, Iruñean?
Bai, apeza Zaragozan ere bai.
- Zaragozan dago ikasten?
Ník uste baietz.
- (Lehengo haria birrartuz) Nola erranen genuke «las mujeres han envejecido»?
Mazte oi... zartu de.
- Sí, pero son varias...
Sí, sí, sí: mazte oiek zartu dire, esas mujeres son mucho viejas.
- Eta hiketan? «mazte horiek zahartu»...
Zartu dire!
- Baina hiketan, «zartu dituk»?
No. Ya... enaiz gauze yausteko! eztao yaus itekoik ere! yausi(k) ere ez, yaus ez, eztut gustoik yausteko, gelditue gaiztua, gaiztua, arront gaiztua, dena eleketan yoaten, dena eleketan... Aua ats, atsa... (eztulka).
- Eta, purua erretzen duzu egunero?
Erdie... erdie.
- Hori ez duzu kentzen, e?
Ez, eztut kentzen, ez.
- Eta kopatxoa ere bai?
Erdie ere, erdie.

Bizimoduaz zerbait; Iruñera lanera (1986)

- Zu, gaztetan, oso goiz hasi zinen Iruñera joaten, sanferminetan?
Eeez!... lanëan beti ni! bizi... ni gazte nitzenean, gazte nitzenëan, beti lanean! aunitz aldiz gau t'eun... aunitz aldiz; famili tzarra zagon emen orduen!... nì zarrena, familie aundie, gastu aundiek, ta... dirue, etzen ikusten i...ñundik ere! ta ni, lanera, emendi Iruñera egunero, bizikletaki, ogeitaborz urtez, je! goorra gero! Erran tzozu, gazte oiei geioko, oraingo oiei, yoateko Iruñera bizikletaki, ta torri, arra(n)tsean. Elurre badao? otz; izotza badao? ta, bera badago, tira! egunero; paragosa azule ta aundie artu? te tia! edekie.
- Zer haundie hartu?
Paragosa! guardasola; batek erraintzu «guardasola», nik «paragosa» errain dut.
- Zertan egiten zenuen lan?
Len-leník? obretan, ta gero, denetan aitu naiz ni, denetan. Pintetzen e aittui(k) e? aitu nitze, ta gero, garaje batean ere lanean; gauze bat paratzen tzelaik? ordun, bertze bat billätu, al daikena. Bai jaune.
- Eta, lehenik, zertan erran duzu?
Obra, obretan, motor iten ta oietan! orduen etzen makinik... ormigon eiteko, az-pille; bi azpilleki? te bat palakin, buelta maten, azpilde aundi bet inte, tira! Ta gero, bixkaikak?... al dan eta goitti, bixkarrian.
- Eta, makina edo zera hori nola, nolakoa zen?

Ze, motor oetaköa? ezpaitzen makinik orduen, orai badire makinek.

– Ez, baina orduan nola egiten zenuen?

Oi, beti nue, azpilde, altzurre bezala, bazen, ba txiki iten, palaki buelta man.

– Ailtzurra bezala? halako kider batekin edo?

Bai.

– Eta, han zenbat urtez aritu zinen horrela?

Ba, ogoitebotz bai... akaatu artio!

– Baina, erran duzu gauza bat baino gehiago egin duzula...

Denetaik.

– Pintatu eta...

Pintetu e bai, bide-lau urtez, ta gero garaje batian ere? olantxe're. Lan bat aundie, asten tzen? beño akabatzen baitzen lan ore, ta oi, eztakit bera, olaxe. Dezentean ori kusie, jefiak eta nausiek eta denak aixkideak, beti!... beti.

Iragi aldean ikatz egiten (1986)

Gaztetik egon nitzen ikezkiñetan, iketz iten ere bai...

– Bai? zuk zerorrek egin duzu ikatza?

Laundu, laundu bai.

– Non egiten zen? ea, konta ezazu...

Je! Olagutik goie, Burdindogi ba(d)a... eliz bat, t'an [...] yendea etortzen tzela ta yoan. Emen aittu're, an goiti bada beztze... oian bat, batena o buena daukada (?), ta ori saldu zen... geiltu zen lau lagunen ertian eo, aidiak tziren. Ta karri zuten, Amesköatik... ikixkin bet, ta yendäa... aunitz artu zuen, ta... gero kiebra in tzuen; berroete bat egun lanian eon? ta, kristuk o, ori eztu kobratu; bai jauna! [...] eskapatu zen? ta akabo.

– Nora joan zen eskapu?

Berak tzakin nora jun!

– Eta, oroitzen zara nola egiten zen ikatza?

Bai, baitte, gañea.

– Nola hasten zen? zer egiten zen hasteko?

Lenik? plaza... inguruköa inte, erditi bear tzie(n)... montontzen ta montondu, montondu, montondu... akabatu artio, goitiko muturren? ta erdien zulo at, betegarritzeko, betegarrie... yaten emateko, zeretan.

– Orduan, montondu egiten ziren egurrak...

Egurre, egurre, klaro! dena puntetua, ola, ta onen gañean beste bat, ta gero beste bat; bazinuke zurierak... berraun te berroit'amar... zaku beren bidean!

– Hainbertze zaku, e?

Bai, iru-lau-bortz egun suten egoten tzien? suten eon, ta gero, bazterretik, bazterretik asi, batzuk iketz, puskatu punten orañi? ta, ure segidoan bota, iketza mallatzen da orduen, akabatzen da; autse biurtzen da, ¡polvo!

– Eta, momentu batean hasten zen ateratzen ke azul bat, ez?

Orrea bai, gaurgero; onek e... kon[tuak], main tizu...

– (Lehen aipatu Pedro agertu berriari): Arratsalde on; ongi? Inazio kontatzen ari da nola egiten zen ikatza...

(Pedro): Onek badaki.

Atzendu zaide... arront.

- Eta, orduan zer egiten zen? ya guti falta da bukatzeko; betegarri eman eta...
 Betegarrie man ta gero, suek akabatzen zirelai(k)? maku et, maku ätekí, goizetan atra? zolatik? ta zakuetan sartu.
- Eta, ez zen botatzen, zera, nola deitzen da?
 Idurie! idurie, ez baiteke il ta.
 – Idurie zer da?
 Lurre bezala, maten tzaiola tapatzeko, tapatu gañeti.
 – Hori da «idurie»?
 Idurie.
 – Eta «zoia» beste gauza bat da, ez?
 Zoie? zoie bakizu zer den?... lur pusku at aundie, ta atzurreki ta mallu eteki, autsi bear bada ori! ori makinëki ba, autsa-, autsaute.
 – Eta, hori zertarako erabiltzen zen?
 Eraiteko o... garie edo, artoa edo... edozein gauze.
 – Baina, zoi puska batzuk ez ziren paratzen ikaztogietan, zuloak tapatzeko eta horrela?
 Ez-ez! betegarrie, egurreki betegarritzen da. Betegarrie zaio, alimentue, alimentue ikeztogiera.

Inazioren lagun Pedro euskara dela eta (1986)

- Erraten didate badakizula zenbait orazio.
 (Pedro): Nere aitetama?... uskaldunek ziren.
 – Nongoak ziren?
 (Pedro): Emengoa... aite? eta, Larrainzarköa ama, Larrainzar. Y... ellos, oskaldunak, ziren, ta, itxan?... no, jejeje! no poder contar a nosotros, los hijos, nada, pero ellos hablaban siempre el vasco, sí. Pero, salíamos a la calle, y en la escuela y, la maestra era... era contraria y en la calle no se hablaba una palabra; así ha desaparecido el vasco aquí, sí. Éste [Ignacio] sabe... éste sabe, sí, ¡a ver si no hay otro en el pueblo!...
- Berak erraten du zuk badakizula aunitz orazio.
 (Pedro, barrez): Sí, bai beño, beño... erdaras!
 – Ez-ez-ez, euskaraz, euskaraz...
 Euskaras ezpaitaki(t) ba...
 (Gizon honen arreba agertu zen): Pedro ¿qué sesión tenéis?
 (Pedro): Sí, ahora a todo trance quiere, quiere aprender conmigo el vascuence; nere anaia [da].
 – A! zure arreba da?
 (Pedro, zuzenduz): Bai, bai, arreba... ezpaitakiela, eztaki, eztaki daus. Vosotros tenéis mucha ilusión con el vasco, y yo no sé lo que veréis de aquí, aquí no tenemos ni ilusión. Sí, nosotros ya podíamos haber aprendido, sí, eso sí, nosotros podíamos haber sabido el vasco... correctamente, pero, no hicieron esfuerzo nuestros padres, nada, y los maestros tampoco. El cura, que era vasco... ¡oye, era vasco! y tampoco hizo nada, ¡nada! Y claro...
 – Apeza nongoa zen?
 (Pedro): Zuazuaköa, bai, cerquica de Irurzun.
 – Eta euskara bazekien?
 (Pedro): Bai, gitzajua! bai-bai, ongi!...
 (Inazio): Erdara biño obeki!

5. ANOTZIBAR

5.1. Francisca Doncel Zalba

Ogi egiten (1986)

– Oramahaia bazen?

Oramaie, bai, ola, arka, or, aundie, au bezalako arka bat, ta an oratu ore, oratu ure leenik irine, gero bota ure, araa e bota... bezperatik iten tzen orantza, ta orantza ore? katzuela batean iduki genuen, arratsean? ta gero, biramon goizean? bota ura ere, ore? oramai arttara?

(Miguel Mugiro gartzarundarra, F. D.en suhia): Ure berokin.

Ta an bota... gatza, gatza; bertze, otra cosa...

– Bai, gatza botatzen zen, bai.

Bai, ta in ore... amasatuik, ben... ongien ongi-ongie? desein dena orantz ore, ta gero? oratu, ori, ogi... ariñe? ba, irine? pixke-pixket bota, ta ore oratu exkuekin, bien-bien-bien. Gero? ore... paatu, una... oial batean patu? preto eman, estu-estue? ta gero, ore, ederki intxetzen tze, aunditu, te ore iten tzelaik? ogie?... baki.

– Puskaka-puskaka.

Puskeka-puskeka, bai; ta gero ore... iduki, ordu bet o... ordu, ordu y media o ola, ta gero? ore, ori... el horno ¿cómo se llama?

– Labea?

Labea! bai, ta an pala bateki sartu, ore calen-, ba berotu ongi-ongie, e? sua ongi... biar tzuen, ta ore be-, patzen tzelaik gorri-gorrie... ¿lo de arriba? geo an, sartu ogi aiek, pala bateki? te an, gutxi gottibetti, pues llamaki, llamak koloria artzeute ori.

– «Garra» erraten da?

Bai, garra, gar... ta andik, paatzen tzeleik eu-, ori, koloratuik koloretto ori?

– Gorri-gorria...

Bai, ttak! Gero? atra andik, etxean etze onbertze... oi. Andi, difikultadia zegon, ongi oratu... bueno, ori...

(Miguel): Ongi oratu ta labea ongi berotu.

Gerra⁸ tzunak iten tzuen aise!... an, benida taka-taka-takara d'ez, ez. Ta, ongi iten tzelaik ori? gero intxetzen tzen andi(k) ure.

– Handitzen zen...

Auni(t)s! gero eiten... cort-, baki [...], puxkeka-puxkeka? ta pala batekin xartu labera, ta an kolorea artzen tzueläik? akabo. Gero, ord-, ordu bet o ordu et y media o ola eduki? te, gero, atra andi(k). Ya está, ogie eiten tzen ala.

– Zenbat denborako, zenbat egunetako?

Zortzi egunteko ta!... zortzi eguneko.

– Eta, zuk zerorrek egin duzu?

Bai, nik ba, aunitz aldis, aunitz aldis in dut ogie, Jesus!

– Zortzigarren egunerako gogor egonen zen...

8 «Garra» bide da hori.

Bai, ba pero... orai yaten dugune beño obia zen ore, un poco... sekatzan tzen pixkoat? beño, oooi!... buenos puskas comíamos (sic).

– Eta, labera sartu aitzin, garbitu behar zen?

Bai, bai.

– Eta, nola garbitzen zen, zerekin?

¿Cómo se llama el boj?

– Ezpel.

(Miguel): Ezpelakin edo...

Ezpela, ezpelaki; bueno edo... balin bezen ber-, una cosa berdea, idukia a...

– Zihaurri edo?

Bai, también, ta lotu esku... esko ori, makil betian, ta arreki garbitu ongi-ongi... labia; garbi ibi-, para-, había que poner. Por ejemplo, au de labian muturre, ta onara karri, dena, zaborr au, ta gero pala batekin, kendu pixkat, bai.

(Miguel): Ori da zakarra.

– Ongi kontatu duzu, e?

Ya! baño...

Otoitz batzuk (1986)

El «Señor mío Jesucristo», por ejemplo:

Jesukristo nere Jaune, Jangoiko eta Gizon egiezkua, nere Kreadore, nere Redentore, Zu nor tzaren izenagati, maitetzen tzaitu(t), gauze guzie peño geyago; damu döt Jaune, damu döt Jaune, bioz-biozetik, Zu ofenditues; artzen dut proposito firme bat, ez berris bekatuik itteko, itteko bidetik apartatzeko. Jaune, nik ofreziten tizut nere bizie, nere obrak, nere trabajoak, izen deizen nere pekatuen satisfaziotan ta ala dauket konfianza andi bet zure ontasune ta miserikordie dela medio, main direzule grazia emendatzeko, perseberatzeko, zure zerbitzu sandureko, il arteañoko denbora guzien. Amen.

Salbea:

Salbe Regina, Mater Misericordie, bizitze ta dulzure, gure esperanza, zure deiez gaude, zugana gaude suspiros, sentimentus eta negarres, negarresko balle onetan; iye bada, Señora, gure abogada, itzuli detteazu guregana zure begi miserikordioso oiek, eta destierro onen onduan erakutsi dezaguzu Jesus, zure sabeleko frutu bedeiketue. O klemetisima! o piadosa! o dulce Birjen Maria! zuk erregu zazu gugatik, Jangoikoaren Ama Santa, merexi dezagun alkantzatzie, Jesukristoren promesak, Amen Jesus.

Ya ve, eso porque conservo siempre...

Gure Aita:

Aitte guria, zeruetan zaudena, santifika bedi zure izena, betor guregana zure errañue, kunpli bedi zure borondate sandue, zeruan bezala lurean ere. Eman dezaguzu guri geren egunesko ogie, egun eta beti, barkazkiguzu guri geren zor, gu zor gaituztenei⁹

⁹ *gaztutunei* aditzen uste dugu hor.

barkatze tioguten bezala, ezkatzuzela¹⁰ utzi tentazioan erortzen¹¹, baizik libre gatzazu gaiz guzietatik, Amen Jesus.

Agur Maria:

Abe Maria, graziaz betia, Jauna dago zureki, bedeiketua zu zara andre guzien ertian ta bedeiketue da zure sabeleko frutua, Jesus. Santa Maria, Jangoikoaren Ama, zuk erregu dezazu, gu pekatariengatik, orai eta beti, geren eriotzeko orduen, Amen Jesus.

Aintza:

Gloria Aitai, gloria Semeari, gloria Espiritu Santi Jaunaren izenian. Izen daiela, orai eta beti, Amen Jesus.

Gurasoen berri (1986)

Yo, Franzixka, Doncel? Zalba... pa servirle a Dios y a usted.

– Zure aitatak nongoak ziren?

La madre? de... Sarasibar.

– Eta aita?

Aite? Larraintx-, Larraintxasköa... Larraintxar, bai. Bai biño, gue ama torri tzen onara.

– Sarasibartik?

Tsarasibarti, ezkondu tzen onara, ta gero, se le murió el marido, y entonces...

– Hil zaikion senarra, il zitzaion?

Bai.

– Eta, orduan, zer egin zuen?

Orduen, ezkondu zen Larraintxarko ateki. Ta ni? lemixko de... de los otros, del... ¿del segundo padre? yo era la primera; ya había tenido... cuatro chicos, la madre.

– Y el primer marido sería de aquí, etxe honetako edo...

(Miguel): Ez, itxe ontakoa ez, bertze itxe aundiaoköa.

6. ANOTZ (EZKABARTE)

6.1. Celedonia Zenotz Artze

Andre hau, Anozko balizko euskaldunen baten arrastoan ibili ondoren, 1981eko urrian, Iruñeko Txantrea auzoan aurkitu genuen, aspaldidanik bere herrixka utzi eta auzo honetara bizitzera etorrira.

Zaila zirudien orduan ibar honetako berriemaile bat, eta are gutxiago berriemaile on bat, aurkitu ahal izateak, baina, zorte handiz izan bazen ere, horrela gertatu zen.

10 «Ezkatzazula» edo, nahiago bada, «ezkatzazule' itxaron zitekeen hor, gure ustez.

11 «Erortzen» hori bitxia da inguru hauetan, Makirriaingo dotrinan argiro ikusten denez: *ezcachazule utzi tentacioan erorzera*, alegia. Eta Latasan ere antzera eman ziguten: *ezkatxalutzë tentazioan erortzera*, honen aurreko saioan (FLV, 126) ikusi ahal izan zenez.

Andrea, luzaz mintzatu gabe egon izanaren ondorio, ausaz, deseroso sentitu zen maiz, eta inoiz kexuka eta marmarka aritu bazen ere, berehala egokitu eta erraztasunez erantzun zion galdetu zitzaion guztiari. Zorionez, bere alaba Mariak oso jarrera ulerkor eta laguntzailea izan zuen.

Anotz, Ezkaba menditik iparraldera kokatu Ezkabarteko eremuari badagokio ere, geografikoki Odieta ibarreko herriei begira dago, horietan hurbilena Anotzibar duela. Haren izenak, gainera, Anotzibar honekin zerikusia duela dirudi, Ezkabarteko alderdia izanik ere¹².

Hemendik hegoaldera ere euskaraz mintza zitekeen lagunen bat aurkitzen saiatu ginen, baina alferrik, opatu genuena ez baitzen ezkabartearra, hurbileko herri batetik, Atezo Eguarastik, hara joandakoa baizik. Makirriaindarra zen, ordea, Ollarango Beasoainen aurkitu genuen Manuela Nuin anderea, baina horrek egiten zuen apurra oso aiantzia egoteaz landa, gurasoak ere ez zituen Ezkabarte berekoak izan.

Elizako kantu-zati ezagunak (1981)

1) Egizozu Maria gugatik erregu, eriotzeko orduan ez gaitezen galdu, eriotzeko orduan ez gaitezen galdu.

Espera, tengo que pensar ahora en la otra...

2) Atoz pekataria, atoz elizara, Jangoikoaren itza gogoz aditzera, gogoz aditzera.

Y ya sabía más antes, pero se me han olvidado, y yo no sé más ahora, en vasco, no sé más. Lo único que sé es contar hasta cien, en vasco.

Zenbakiak, ehun arte (1981)

– Tira ba, konta ezazu.

